memorian kontuan hartzen den egutegian aurreikusitako epearen barruan gauzatu beharko dira; eperik ez badago gehienez ere urtebetean.

Obrak burutu direla egiaztatzen ez bada emandako finantza-neurriak errebokatzeari ekingo zaio, obra horiek ez burutzea titularrari egotzi ez dakiokeen luzapen edo ezinbesteko kasuren bat izan ezean.

Zeu zara aipatutako espedientearen titularra, eta 18 hilabete igaro arren, ez da birgaitzeko obrak guztiz amaitu direlako ziurtagiririk ageri. Horrenbestez, obrak amaitu direlako ziurtagiria aurkezteko eskatzen zaizu edo obrak amaitzeko ezintasunaren arrazoiak adierazteko Lurralde Ordezkaritza honetan hamabost egun baino lehen. Bestela, eman zaizkizun finantza-neurriak guztiz edo partzialki errebokatuko zaizkizu eta dagoeneko erabili dituzun dirulaguntzak itzuli beharko dituzu.

Bilbon, 2007ko, martxoaren 2an.—Bizkaiako Etxebizitza Zerbitzuko burua, José Antonio Sierra Sainz

(III-82)

de ejecutarse bien conforme al plazo previsto en el calendario obrante en la memoria del proyecto correspondiente, bien, en caso de que no exista, en el plazo máximo de un año.

En caso de no acreditarse dicha ejecución se procederá a la revocación de las medidas financieras concedidas, salvo prórroga o existencia de fuerza mayor o causas no imputables al titular.

Siendo usted titular del expediente de referencia y no habiendo justificado adecuadamente la ejecución total de las obras de rehabilitación, a pesar del transcurso de 18 meses, por la presente se le requiere la presentación de certificación final de las obras o de las causas de su imposible ejecución en el plazo de quince días ante esta Delegación Territorial, señalándole que en caso contrario se procederá a la revocación total o parcial de las medidas financieras concedidas y al reintegro de las ayudas económicas ya dispuestas.

En Bilbao, a 2 de marzo de 2007.—El Jefe del Servicio de Vivienda de Bizkaia, José Antonio Sierra Sainz

(III-82)

•

IRAGARKIA

Velo Arias, Iñigo jaun jakitun ipintzeko ezagutzen zaien azken helbidea: Aizkorri kalea, 1-4. B (48160-Derio), Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59. artikuluarekin bat etorriz, honako hau jakinarazten da:

Espediente zenbakia: EB2-1577/03-BB-001.

Etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko 2002ko abenduaren 30ko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren Aginduaren 7. artikuluak ezartzen duenez, eraikinak eta etxebizitzak babespean birgaitzeko obrak dagokion proiektuaren memorian kontuan hartzen den egutegian aurreikusitako epearen barruan gauzatu beharko dira; eperik ez badago gehienez ere urtebetean.

Obrak burutu direla egiaztatzen ez bada emandako finantza-neurriak errebokatzeari ekingo zaio, obra horiek ez burutzea titularrari egotzi ez dakiokeen luzapen edo ezinbesteko kasuren bat izan ezean.

Zeu zara aipatutako espedientearen titularra, eta 18 hilabete igaro arren, ez da birgaitzeko obrak guztiz amaitu direlako ziurtagiririk ageri. Horrenbestez, obrak amaitu direlako ziurtagiria aurkezteko eskatzen zaizu edo obrak amaitzeko ezintasunaren arrazoiak adierazteko Lurralde Ordezkaritza honetan hamabost egun baino lehen. Bestela, eman zaizkizun finantza-neurriak guztiz edo partzialki errebokatuko zaizkizu eta dagoeneko erabili dituzun dirulaguntzak itzuli beharko dituzu.

Bilbon, 2007ko, uztailaren 18an.—Bizkaiko Etxebizitza Zerbitzuko burua, José Antonio Sierra Sainz

(III-83)

ANUNCIO

Para conocimiento del Sr. Velo Arias, Iñigo, cuyo último domicilio conocido fue en calle Aizkorri, 1-4.º B (48160-Derio), de conformidad con el artículo 59 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se notifica lo siguiente:

Número de expediente: EB2-1577/03-BB-001.

El artículo 7 de la Orden de 30 de diciembre de 2002 del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, sobre medidas financieras para rehabilitación de vivienda, establece que las obras de rehabilitación protegida de edificios y viviendas habrán de ejecutarse bien conforme al plazo previsto en el calendario obrante en la memoria del proyecto correspondiente, bien, en caso de que no exista, en el plazo máximo de un año.

En caso de no acreditarse dicha ejecución se procederá a la revocación de las medidas financieras concedidas, salvo prórroga o existencia de fuerza mayor o causas no imputables al titular.

Siendo usted titular del expediente de referencia y no habiendo justificado adecuadamente la ejecución total de las obras de rehabilitación, a pesar del transcurso de 18 meses, por la presente se le requiere la presentación de certificación final de las obras o de las causas de su imposible ejecución en el plazo de quince días ante esta Delegación Territorial, señalándole que en caso contrario se procederá a la revocación total o parcial de las medidas financieras concedidas y al reintegro de las ayudas económicas ya dispuestas.

En Bilbao, a 18 de julio de 2007.—El Jefe del Servicio de Vivienda de Bizkaia, José Antonio Sierra Sainz

(III-83)

•

## Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

EBAZPENA, 2008ko otsailaren 11koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkariarena. Honen bidez ebazten Comercio Textil de Bizkaia sektore-arentzako Soldaten Berrikuspena eta Hitzarmen Kolektiboaren 2008rako taulak erregistratu eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 4800595.

*Aurrekariak*

1. 2008ko urtarrilaren 28an aurkeztu dira Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan, 2008ko urtarrilaren 24ean sinatutako Comercio Textil de Bizkaia sektorearentzako Hitzarmen Kolektiboaren Batzorde Negoziazioaren aktaren testua. Batzorde hori ELA y U.G.T. sindikatuek eta CEBEK elkarteak —enpresarien ordezkari gisa— osatzen dute.

## Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social

RESOLUCIÓN de 11 febrero de 2008, de la Delegada Territorial en Bizkaia del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se resuelve el registro y publicación de la Revisión Salarial para 2008 del Convenio Colectivo para el Sector de Comercio Textil de Bizkaia. Código Convenio núm. 4800595.

*Antecedentes*

1. Con fecha 28 de enero de 2008, ante esta Delegación Territorial de Bizkaia, se ha presentado el texto del acta de la Comisión Negociadora del Convenio Colectivo para el Sector de Comercio Textil de Bizkaia, suscrito el 24 de enero de 2008, compuesta por las centrales sindicales ELA. y U.G.T. y por la representación empresarial CEBEK.

2. Aipatutako hitzarmenaren soldata-berrikuspenaren akta sinatu dute CEBEK eta ecova enpresarien ordezkariek eta Negoziazio Batzordean ELA y U.G.T. sindikatuek dituzten ordezkariek, eta horiek aipatutako batzordeko bi aldeetako ordezkarien %50 baino gehiago dira.

3. Aipatutako hitzarmenaren indarraldia 2008ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31 artekoa da.

*Zuzenbideko oinarriak*

1. Aipatutako Hitzarmen Kolektiboa inskribatu eta argitaratzeko eskumena Langileen Estatutuaren testu bategina onartu zuen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuko 90.2 artikuluak erabakitzen du, eta artikulu horrek xedatzen duenez, hitzarmenak —erregistratzeko bakarrik— Lan Agintaritzari aurkeztu beharko zaizkio, hori guztia Hitzarmen Kolektiboen Erregistroa sortu eta antolatzeari buruzko Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuak dekretu hori garatzen duen1982ko azaroaren 3ko Aginduak eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren urriaren 18ko 315/2005 Dekretuaren 24.1.g) artikuluak —Euskadiko Hitzarmen Kolektiboen Erregistroko Lurralde Atalaren kudeaketa Lurralde Ordezkaritzari ematen dionak— xedatutakoaren ildotik.

2. Aipatutako hitzarmena sinatu dute Negoziazio Batzordeko enpresarien ordezkari gehienek eta ordezkari sozial gehienek; hori dela eta, hartutako akordioak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 89.3 artikuluak xedatutako baldintzak.

3. Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 90.5 artikuluak xedatzen duenez, Lan Agintaritzaren iritziz hitzarmenak indarreko legea hausten badu edo hirugarrenen interesak larriki kaltetu, agintaritza horrek jurisdikzio eskumendunera joko du; eta kasu honetan hirugarrenen interesik kaltetu edota indarreko legea hausten ez denez, hitzarmena erregistratu eta gordailutzen da, eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitara ematen da, aipatutako artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiekin bat etorriz.

Aipatutako legezko arauak eta oro har aplikatzekoak direnak ikusirik, Bizkaiko Lurralde ordezkariak, zera

EBATZI DU:

1. Comercio Textil de Bizkaia sektorearentzako 2008ko Soldata Berrikuspenak Lurralde Atal honetako Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.

2. Aipatutako Hitzarmen Kolektiboa «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzea.

3. Lurralde Ordezkaritza honetan gordailutzea.

4. Jakinarazi ebazpen hau alderdiei, eta jakinarazi, halaber, honen aurka badagoela Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendariari gorako errekurtsoa aurkeztea, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluan —115. artikuluaren ildotik— xedatutakoarekin bat etorriz —lege hori 4/1999 Legeak aldatu zuen, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen Egitura finkatzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuaren 17.j) artikuluaren ildotik—.

Bilbon, 2008ko otsailaren 11n.—Bizkaiko Lurralde Ordezkaria, Karmele Arias Martínez

**BIZKAIKO EHUNKIEN MERKATARITZARAKO HITZARMENA. 2008. URTEA**

ARTIKULU BERRIKUSIAK

**23. artikulua.—*Dietak eta bidaiak***

Bazkaria: 11,30 euro.

Afaria: 8,26 euro.

Lo egitea: 19,27 euro.

Egun osoa: 38,83 euro.

2. El acta de la revisión salarial de dicho convenio ha sido suscrita por los representantes de la patronal CEBEK y por los representantes sindicales de ELA y U.G.T. de la Comisión Negociadora, que constituyen más del 50% de ambas representaciones en dicha Comisión.

3. La vigencia de dicha Revisión Salarial se establece del 1 de enero de 2008 al 31 de diciembre de 2008.

*Fundamentos de Derecho*

1. La competencia para la inscripción y publicación del citado Convenio Colectivo viene determinada por el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores, conforme a lo dispuesto en su artículo 90.2, que determina que los Convenios deberán ser presentados ante la Autoridad Laboral a los solos efectos de registro, en relación con el Decreto del Gobierno Vasco 39/1981, de 2 de marzo, sobre creación y organización del Registro de los Convenios Colectivos de Trabajo, y la Orden de 3 de noviembre de 1982, que desarrolla el citado Decreto, así como el artículo 24.1.g) del Decreto 315/2005, de 18 de octubre, del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, que atribuye a la Delegación Territorial la facultad de gestionar la Sección Territorial del Registro de Convenios Colectivos de Euskadi.

2. El citado Convenio ha sido suscrito por la mayoría de la representación empresarial y de la representación social en la Comisión Negociadora, por lo que el acuerdo adoptado reúne los requisitos del artículo 89.3 del Texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores citado.

3. El artículo 90.5 del Texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores determina que si la Autoridad Laboral estimase que el Convenio conculca la legalidad vigente o lesiona gravemente el interés de terceros, se dirigirá de oficio a la Jurisdicción competente, y considerando que en el presente supuesto no se lesiona el interés de terceros ni se conculca la legalidad vigente, procede, de conformidad con los apartados 2 y 3 del citado artículo, su registro y depósito, así como disponer su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Vistos los preceptos legales citados y demás de general aplicación, la Delegada Territorial en Bizkaia

RESUELVE:

1. Ordenar la inscripción en el Registro de Convenios Colectivos de esta Sección Territorial de la Revisión Salarial para el 2008 del Convenio Colectivo del Sector para el Comercio Textil de Bizkaia.

2. Disponer la publicación del citado Convenio Colectivo en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

3. Proceder a su correspondiente depósito en esta Delegación Territorial.

4. Notificar la presente Resolución a las partes, haciendo saber que contra la misma podrán interponer recurso de alzada ante el Director de Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes, de conformidad con lo establecido en el artículo 114, en relación con el artículo 115 de la Ley de 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y des Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, en relación con el artículo 17.j) del Decreto 315/2005, de 18 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

En Bilbao, a 11 de febrero de 2008.—La Delegada Territorial en Bizkaia, Karmele Arias Martínez

**CONVENIO COMERCIO TEXTIL DE BIZKAIA. AÑO 2008**

ARTÍCULOS REVISADOS

**Artículo 23.—*Dietas y viajes***

Comida: 11,30 euros.

Cena: 8,26 euros.

Dormir: 19,27 euros.

Día completo: 38,83 euros.

**24. artikulua.—*Enpresa lekuz aldatzea***

Bazkaria: 7,05 euro.

**26. artikulua.—*Erosketak***

1. paragrafoa - Zenbatekoa: 1.699,10 euro.

2. paragrafoa - Zenbatekoa: 1.633,74 euro.

**32. artikulua.—*Iraunkortasunaren diru-ordaina***

2007ko kopuruei Bizkaiko KPIaren baliokidea den % 4,2ko igoera aplikatu zaie.

**33. artikulua.—*Enpresan irauteagatiko saria***

15 urte daramatzanari: 279,33 euro.

25 urte daramatzanari: 414,10 euro.

40 urte daramatzanari: 648,51 euro.

**Artículo 24.—*Traslado de empresa***

Comida: 7,05 euros.

**Artículo 26.—*Compras***

Párrafo 1.º - Importe: 1.699,10 euros.

Párrafo 2.º - Importe: 1.633,74 euros.

**Artículo 32.—*Indemnización a la constancia***

Se aplica un incremento sobre los valores de 2007 del 4,2% equivalente al IPC de Bizkaia de 2007.

**Artículo 33.—*Premio de permanencia en la empresa***

A los 15 años: 279,33 euros.

A los 25 años: 414,10 euros.

A los 40 años: 648,51 euros.

**2008KO SOLDATA TAULAK**

| Kategoriak | Hileko oinarrizko soldata 2008 | Urteko soldata 2008 | Urteko gutxieneko bermea 2008 |
|---|---|---|---|
| **I. taldea** | | | |
| Goi-mailako tituludunak | 1.976,65 | 29.649,75 | 1.572,34 |
| Laguntzaile teknikoa | 1.449,86 | 21.747,86 | 1.153,30 |
| Praktiketako langileak | 1.096,46 | 16.446,86 | 872,18 |
| **II. taldea** | | | |
| Langile-burua, salmenta-burua, erosketa-burua | 1.455,01 | 21.825,11 | 1.157,39 |
| Arduradun Nagusia | 1.455,01 | 21.825,11 | 1.157,39 |
| Biltegi-burua | 1.276,20 | 19.143,05 | 1.015,16 |
| Sukurtsal-burua | 1.276,20 | 19.143,05 | 1.015,16 |
| Talde-burua | 1.147,93 | 17.218,92 | 913,12 |
| Atalburua | 1.231,73 | 18.475,98 | 979,79 |
| Arduraduna, saltzailea, eroslea | 1.126,14 | 16.892,03 | 895,79 |
| Saltzaile bidaiaria | 1.019,59 | 15.293,78 | 811,03 |
| Hiri-artekaria | 968,43 | 14.526,48 | 770,34 |
| Saltzaile nagusia | 1.222,27 | 18.334,06 | 972,26 |
| Dendaria | 1.110,51 | 16.657,70 | 883,36 |
| Laguntzailea | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| **III. taldea** | | | |
| Administrazio-burua | 1.692,95 | 25.394,28 | 1.346,67 |
| Atalburua | 1.409,28 | 21.139,15 | 1.121,02 |
| Kontularia, kutxazaina, atzerriko hizk. dakien takimek | 1.291,08 | 19.366,14 | 1.026,99 |
| Ofizial administraria | 1.149,26 | 17.238,83 | 914,18 |
| Administrari laguntzailea | 1.110,51 | 16.657,70 | 883,36 |
| Administrari urgazlea | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| 16 urtetik 18 urtera bitarteko izangaia | 628,54 | 9.428,16 | 499,98 |
| 16 urteko kutxazain laguntzailea | 606,80 | 9.101,94 | 482,68 |
| 17 urteko kutxazain laguntzailea | 628,54 | 9.428,16 | 499,98 |
| 18 urteko kutxazain laguntzailea | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| Kutxako laguntzailea | 1.110,51 | 16.657,70 | 883,36 |
| Prestakuntza-kontratudun langileak | 606,80 | 9.101,94 | 482,68 |
| **IV. taldea** | | | |
| Marrazkilaria | 1.276,20 | 19.143,05 | 1.015,16 |
| Erakusleiho-apaintzailea | 1.145,84 | 17.187,61 | 911,46 |
| Errotulugilea | 1.099,52 | 16.492,81 | 874,62 |
| Ebakitzailea | 1.177,65 | 17.664,77 | 936,77 |
| Ebakitzaile laguntzailea | 887,99 | 13.319,80 | 706,35 |
| **Ofizioko profesionalak** | | | |
| Lehen mailakoa | 1.110,51 | 16.657,70 | 883,36 |
| Bigarren mailakoa | 995,90 | 14.938,46 | 792,19 |
| Ofizioko laguntzailea | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| Langilezaina | 1.089,53 | 16.342,88 | 866,67 |
| Morroi espezializatua | 1.047,64 | 15.714,61 | 833,35 |
| Morroia | 1.005,74 | 15.086,17 | 800,02 |
| Telefonista, ontziratzailea, konpontzailea, etab. | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| **V. taldea** | | | |
| Etxezaina | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| Kobratzailea | 942,65 | 14.139,68 | 749,83 |
| Jagolea, mandataria, atezaina | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| Garbitzaileak | 802,84 | 12.042,66 | 638,63 |

**TABLAS SALARIALES AÑO 2008**

| Categorías | Salario base mensual 2008 | Salario anual 2008 | Garantía mínima anual 2008 |
|---|---|---|---|
| **Grupo I** | | | |
| Titulados/as Superiores | 1.976,65 | 29.649,75 | 1.572,34 |
| Ayudantes/as Técnicos/as | 1.449,86 | 21.747,86 | 1.153,30 |
| Practicantes/as | 1.096,46 | 16.446,86 | 872,18 |
| **Grupo II** | | | |
| Jefe/a de personal, ventas, compras | 1.455,01 | 21.825,11 | 1.157,39 |
| Encargado/a general | 1.455,01 | 21.825,11 | 1.157,39 |
| Jefe/a de Almacén | 1.276,20 | 19.143,05 | 1.015,16 |
| Jefe/a de Sucursal | 1.276,20 | 19.143,05 | 1.015,16 |
| Jefe/a de Grupo | 1.147,93 | 17.218,92 | 913,12 |
| Jefe/a de Sección | 1.231,73 | 18.475,98 | 979,79 |
| Encargado/a, vendedor/a, comprador/a | 1.126,14 | 16.892,03 | 895,79 |
| Viajante/a | 1.019,59 | 15.293,78 | 811,03 |
| Corredor/a de plaza | 968,43 | 14.526,48 | 770,34 |
| Dependiente/a mayor | 1.222,27 | 18.334,06 | 972,26 |
| Dependiente/a | 1.110,51 | 16.657,70 | 883,36 |
| Ayudante/a | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| **Grupo III** | | | |
| Jefe/a Administrativo | 1.692,95 | 25.394,28 | 1.346,67 |
| Jefe/a de Sección | 1.409,28 | 21.139,15 | 1.121,02 |
| Contable, Cajero/a, Taquim. con idioma extranjero | 1.291,08 | 19.366,14 | 1.026,99 |
| Oficial/a Administrativo | 1.149,26 | 17.238,83 | 914,18 |
| Auxiliar Administrativo | 1.110,51 | 16.657,70 | 883,36 |
| Ayudante/a Administrativo/a | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| Aspirante/a de 16 a 18 años | 628,54 | 9.428,16 | 499,98 |
| Auxiliar de Caja de 16 años | 606,80 | 9.101,94 | 482,68 |
| Auxiliar de Caja de 17 años | 628,54 | 9.428,16 | 499,98 |
| Auxiliar de Caja de 18 años | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| Auxiliar de Caja | 1.110,51 | 16.657,70 | 883,36 |
| Contrato Formación | 606,80 | 9.101,94 | 482,68 |
| **Grupo IV** | | | |
| Dibujante/a | 1.276,20 | 19.143,05 | 1.015,16 |
| Escaparatista | 1.145,84 | 17.187,61 | 911,46 |
| Rotulista | 1.099,52 | 16.492,81 | 874,62 |
| Cortador/a | 1.177,65 | 17.664,77 | 936,77 |
| Ayudante/a de Cortador/a | 887,99 | 13.319,80 | 706,35 |
| **Profesionales de oficio** | | | |
| De primera | 1.110,51 | 16.657,70 | 883,36 |
| De segunda | 995,90 | 14.938,46 | 792,19 |
| Ayudante/a de Oficio | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| Capataz/a | 1.089,53 | 16.342,88 | 866,67 |
| Mozo/a especializado/a | 1.047,64 | 15.714,61 | 833,35 |
| Mozo/a | 1.005,74 | 15.086,17 | 800,02 |
| Telefonista, embasador/a, reparador/a, etc. | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| **Grupo V** | | | |
| Conserje | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| Cobrador/a | 942,65 | 14.139,68 | 749,83 |
| Vigilante/a, Ordenanza, Portero/a | 859,03 | 12.885,52 | 683,32 |
| Personal de Limpieza | 802,84 | 12.042,66 | 638,63 |

**IRAUNKORTASUNAREN DIRU-ORDAINA**

| Kategoriak | 2008. urtea |
|---|---|
| **I. taldea** | |
| Goi-mailako tituludunak | 1.556,88 |
| Laguntzaile teknikoak | 1.148,52 |
| Praktiketako langileak | 856,12 |
| **II. taldea** | |
| Langile-burua | 1.141,63 |
| Salmenta-burua | 1.141,63 |
| Erosketa-burua | 1.141,63 |
| Arduradun Nagusia | 1.141,63 |
| Biltegi-burua | 999,24 |
| Sukurtsal-burua | 999,24 |
| Talde-burua | 899,74 |
| Atalburua | 846,00 |
| Arduraduna, saltzailea, eroslea | 866,52 |
| Saltzaile bidaiaria | 794,98 |
| Hiri-artekaria | 754,18 |
| Dendaria | 733,79 |
| Dendari nagusia, %10 gehiago | 807,16 |
| **III. taldea** | |
| Administrazio-burua | 1.243,68 |
| Atalburua | 999,10 |
| Kontularia, kutxazaina, atzerriko hizk. dakien takimek. | 896,98 |
| Ofizial administraria | 774,81 |
| Administrari laguntzailea | 757,99 |
| Kutxako laguntzailea | 733,79 |
| **IV. taldea** | |
| Marrazkilaria | 999,24 |
| Erakusleiho-apaintzailea | 897,02 |
| Errotulugilea | 858,68 |
| Ebakitzailea | 885,03 |
| Laguntzaile ebakitzailea | 693,34 |
| **Ofizioko profesionalak** | |
| Lehen mailakoa | 694,21 |
| Bigarren mailakoa | 624,07 |
| Langilezaina | 611,60 |
| Morroi espezializatua | 613,36 |
| Morroia | 527,39 |
| Ofizioko laguntzailea, telefonista, ontziratzailea, konpontzailea, etab. | 450,46 |
| **V. taldea** | |
| Etxezaina | 450,46 |
| Kobratzailea | 494,30 |
| Jagolea, mandataria, atezaina | 450,46 |
| Garbitzaileak | 420,98 |

(III-85)

•

EBAZPENA, 2008ko urtarrilaren 17koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Bizkaiko Lurralde Industrias Bazkidek, S.A. Hitzarmen Kolektiboa erregistratu eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 4801262.

*Aurrekariak*

1. 2007ko urriaren 4aurkeztu dira, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan, 2007ko irailaren 5an sinatutako Industrias Bazkidek, S.A. enpresarentzako Hitzarmen Kolektiboaren testua eta negoziazio-mahaia eratzeko hasierako akta eta bukaerako akta.

2. Testu hori Negoziazio Mahaiko enpresaren eta langileen ordezkariek sinatu zuten.

3. Aipatutako hitzarmenaren indarraldia 2007ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31 artekoa da.

*Zuzenbideko oinarriak*

1. Aipatutako Hitzarmen Kolektiboa inskribatu eta argitaratzeko eskumena Langileen Estatutuaren testu bategina onartu zuen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuko 90.2 artikuluak erabakitzen due, eta artikulu horrek xedatzen duenez, hitzarmenak —erregistratzeko bakarrik— Lan Agintaritzari aurkeztu beharko zaizkio, hori guztia Hitzarmen Kolektiboen Erregistroa sortu

**INDEMNIZACIÓN A LA CONSTANCIA**

| Categorías | Año 2008 |
|---|---|
| **Grupo I** | |
| Titulados/as superiores | 1.556,88 |
| Ayudantes/as Técnicos/as | 1.148,52 |
| Practicantes/as | 856,12 |
| **Grupo II** | |
| Jefe/a de Personal | 1.141,63 |
| Jefe/a de Ventas | 1.141,63 |
| Jefe/a de Compras | 1.141,63 |
| Encargado/a General | 1.141,63 |
| Jefe/a de Almacén | 999,24 |
| Jefe/a de Sucursal | 999,24 |
| Jefe/a de Grupo | 899,74 |
| Jefe/a de Sección | 846,00 |
| Encargado/a, Vendedor/ra, Comprador/ra | 866,52 |
| Viajante/a | 794,98 |
| Corredor/ra de plaza | 754,18 |
| Dependiente/a | 733,79 |
| Dependiente/a mayor, el 10% más | 807,16 |
| **Grupo III** | |
| Jefe/a Administrativo | 1.243,68 |
| Jefe/a de Sección | 999,10 |
| Contable, Cajero/a, Taquim. con idioma extranjero | 896,98 |
| Oficial/a Administrativo | 774,81 |
| Auxiliar Administrativo | 757,99 |
| Auxiliar de Caja | 733,79 |
| **Grupo IV** | |
| Dibujante/a | 999,24 |
| Escaparatista | 897,02 |
| Rotulista | 858,68 |
| Cortador/a | 885,03 |
| Ayudante/a cortador/a | 693,34 |
| **Profesionales de oficio** | |
| De primera | 694,21 |
| De segunda | 624,07 |
| Capataz/a | 611,60 |
| Mozo/a especializado | 613,36 |
| Mozo/a | 527,39 |
| Ayudante/a de oficio; Telefonista, Embasador/a, Reparador/ra, etc. | 450,46 |
| **Grupo V** | |
| Conserje | 450,46 |
| Cobrador/ra | 494,30 |
| Vigilante/a, Ordenanza, Portero/a | 450,46 |
| Personal de Limpieza | 420,98 |

(III-85)

•

RESOLUCIÓN de 17 de enero de 2008, de la Delegada Territorial en Bizkaia del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se resuelve el registro y publicación del Convenio Colectivo para la empresa Industrias Bazkidek, S.A. Código Convenio 4801262.

*Antecedentes*

1. Con fecha 4 de octubre de 2007, ante esta Delegación Territorial de Bizkaia, se ha presentado el texto del Convenio Colectivo para la empresa Industrias Bazkidek, S.A., suscrito el 5 de setiembre de 2007, así como el acta inicial de constitución de la Mesa Negociadora y el acta final.

2. Dicho texto ha sido suscrito por los representantes de la empresa y los delegados de los trabajadores de la Comisión Negociadora.

3. La vigencia de dicho Convenio se establece del 1 de enero de 2007 al 31 de diciembre de 2007.

*Fundamentos de derecho*

1. La competencia para la inscripción y publicación del citado Convenio Colectivo viene determinada por el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores, conforme a lo dispuesto en su artículo 90.2, que determina que los Convenios deberán ser presentados ante la Autoridad Laboral a los solos efectos de registro,